


# Mikel Laboa flamenkora, 'fatto in Italia'



Manuela Carrettak Euskal Herrian dituen lagun batzuei esker ezagutu zuen Mikel Laboaren kantagintza. **FIorenZO ZANCAN**



ANE UNDIRRAGA



Laboaren 'Orreaga' kanta flamenkora egokitu du Manuela Carretta dantzari italiarrak. Koreografia Flamenkoko

Laburmetraien II. Jaialdian aurkeztu berri da Madrileko Matadero Sormen Garaikiderako Zentruan

Flamenko dantzarien ohiko kolorea. Eta takoidun zapatak ere gorriak dira. Manuela Carretta makillajerik gabe ageri da.

**K**OLPEA, kantua eta dantza da flamenkoa, XVIII. mendean Andaluzian sortu zen musika eta dantza estiloa. Mendebate beranduago, Mikel Laboak Orreaga bezalako kantuekin egin zuena musika esperimentalista izan zen. XXI. mende honean, biak uztartuta erakusten dizkigu Manuela Carretta koreografoak (1965, Schio). Laboaren Haika Mutil abestia jantzia du jada flamenkoz eta "bost urteko inkubazio lanaren ostean", Orreaga abestiarekin ausartu da.

Flamenkora Londresen egindako egonaldia eskertu hurbildu zen. Mikel Laboaren berri, aldiz, Euskal Herriko lagun batzuen bidez izan du. Flamenkoa hizkuntza oso aberatsa eta malgua dela iruditzen zaio dantzariari, jokamolde musikalki desberdinekin jokatzeko aukera ematen duena. Eta ez du zalantzarik: Laboaren ahotsak forma artistiko askorekin jarduteko ahalmena du. "Bere ahotsak erraiak mugiarazten ditu eta sormena elikatzen du", irizten du, baina "ez da erraza, bere esperimentazioak

emozio asko ukitzen ditu", onartzen du.

**DANTZA, IRUDIA ETA SOINUA** Dantza eta soinua erabakita, bi osagaiak forma hartuko duten lekua aukeratu du. Italian. Vicenzako Lago di Fimonen dagoen urgaineko ontziraleku abandonatua da koreografiaren espazioa. "Leku hotza, galdua, zaharkitua eta utzia da", kontatu du. Urbia, Lekeitio, Aralar, Donostia edota Hendaia ezagutu ondoren Venetoko paisaia murgilduta ibili da koreografia prestatzen. "Munduaz isolaturik dagoen paraje predolomitikoa honetan egia bilatu behar nuen, Laboak nigan pizten zuen benetako keinua edo mugimendua".

Dantza sinplea da, "espazioak betetzen eta husten duena". Noizean behin espazioak berak igortzen dituen haitzen eta egurren soinuak entzuten dira. Eta entzuten den irrintiak IX. mendeko Orreagako Guduko gerlari mozkorren irudia apurtzen du. Oro har, atrezzoak apala da, melodiak, mugimenduek eta inguruneak baitute benetako indarra. Soinekoa sinplea da. Gorria.

## EZUSTEKO 'FLASH-BACK'

Euskal kantari esperimentalistaren musika girotuko zuen eszenak deskubritzen ibili denean, zenbait ezusteko hartu ditu flamenko dantzari italiarrak. Ezusteko pozgarriak izan dira, lanean motibatuta egoten lagundu diotenak. Venezian zebilela, San Giovanni Eliza Ebanjelistan sartzeko aukera izan zuen, beti ibxita egoten den elizan, hain zuzen. Handik irteetan jakin zuen 1976an Mikel Laboak bertan musika emanaldia eskaini zuela. "Euskal Herriko kanpo asko kantatzen ez zuen garai hartan", azaldu du Carrettak.

Lan hau egitea bere premia bat betetzea izan dela kontatu du, denbora luze Mikel Laboaren musika entzun eta ikertu ostean egin duena. "Urteak dira dantza, irudia eta soinua elkartuko zituzten zerbaiten atzetik nabilela", dio. Horregatik aukeratu du ikus-entzunezko bideo bat osatzea. Bideoa bereziki "sormen prozesuan erabat sartzen naizelako eta irudiaren bidez xehetasun guztiak erakusten direlako". Behin sormen prozesua egituratuta eta ikus-entzunezkoaren osagai guztiak interakzioan jarrita, Fiorenzo Zancan bideo ekoizlea hautatu du dantzariak. Bera izan da kamara atzetik koreografia harrapatu eta zortzi minutuko bideoa teknikoki ekoiztu duena.

"Euskal Herriko errealtate konplexuan sortutako musikari oinarritutako lan batek Madrileko FFLAC jaialdian interesa piztu izanak esanahia duela iruditzen zaio". Kontuan hartzeko kultur balio baten aitortza dela uste du. Orain, egindako lana erakusteko ordua iritsi dela esanez jaialdiaren zain dago Carretta, beste 17 hautagairekin batera lehiaketa sailerako hautatua izan dena. Horren ostean, proiektu honi segida ematekotan da. Dударik ez du: orain arte Mikel Laboaren lurren eta sustarriak ikertu dituen bezala, Euskal Herrira joan-etorriak egiten jarraituko du.